

# Jan Gossarten *Familia Santua*



Maryan W. Ainsworth  
Ana Sánchez-Lassa

**BILBOKO ARTE  
EDERREN MUSEOA  
MUSEO DE BELLAS  
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

### **Argazki-kredituak**

- © Archivo del Instituto de Valencia de Don Juan, Madrid: 18. eta 21. ir.
- © Archivo General. IPCE. Ministerio de Cultura, Madrid: 22., 23., 24., 26. eta 27. ir.
- © Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1., 5., 6., 8.-12., 15. eta 20. ir.
- © Chrysler Museum of Art, Norfolk, Virginia. Gift of Walter P. Chrysler: 14. ir.
- © Cleveland Museum of Art. The Delia E. Holden Fund and a fund donated as a memorial to Mrs. Holden by her children: Guerden S. Holden, Delia Holden White, Roberta Holden Bole, Emery Holden Greenough, Gertrude Holden McGinley: 3. ir.
- © Lucía Castro: 16. eta 17. ir.
- © Museo Nacional del Prado, Madrid: 4. eta 25. ir.
- © 2012 Museum of Fine Arts, Boston: 12. ir.

Argitalpena:

*Buletina = Boletín = Bulletin.* Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 6. zenb., 2012, 73.-112. or

Babeslea:



**metro bilbao**

**F**amilia Santua [1. ir.] kalitate handiko lana da, Bilboko Arte Ederren Museoko bildumakoa. Jan Gossart-ek margotu zuen, «Gossaert» eta «Mabuse» ere deitua zenak<sup>1</sup>. Orain dela gutxi maisu garrantzitsu honi buruzko erakusketa bat izan da New Yorkeko Metropolitan Museumen, Londresko National Galleryn bigarren egoitza izan duena, *Man, Myth, and Sensual Pleasures: Jan Gossart's Renaissance* izeneko (Gizona, mitoa eta zentzumenezko plazerak: Jan Gossarten berpizkundea). Erakusketa hori abiaburutzat hartuta, artistaren ekoizpenaren balioespen berria egin da, bereziki iraganean behar bezalako arretarik bildu ez zituzten artistaren lanak hartuta. Bilboko *Familia Santua* da lan horietako bat. XVII. mendetik zegoen Cuervako elizan (Toledo), eta gero karmeldar oinutsen komentuan egon zen. 1965ean Rotterdamen eta Brujasen jarri zen ikusgai, egile honi buruzko erakusketa monografikoan, baina, harrez gero, oso gutxitan aipatu da obra literatura espezializatuan. Honako hau aukera ezin hobea izan da lana aztertzeari ekiteko, eta hainbat ikuspegiatik egiteko, esate baterako, ikuspegi estilistikotik, historikotik, teknikutik eta analitikotik. Horrela, orain arte ezezagunak ziren lanari buruzko hainbat alderdi argitu ahal izan dira, eta horren emaitza artikuluhonetan aurkeztuko dugu.

## Azterketa estilistikoa eta teknikoa

Bilboko koadroan, Gossartek arkitektura-dentsitate handiko jauregi-ingurunean kokatu du Familia Santua, landarezko girlandekin, akanto-hostoekin eta urre-koloreko bukraneoeekin dekoratutako zutabez apainduta. Goiko eskuinaldeko angeluko leihotik agertzen den ikuspegi Antzinate Klasikoari egindako aipamena da, izan ere, jauregi zahar baten hondakinak agertzen dira bertan. Harrizko jarleku batean eserita, zabalik dagoen leiho baten ondoan, Andre Mariak arrosa zuri bat luzatzen dio bere seme urduriari –bere garbitasunaren eta Kristoren jaiotzaren mirariaren sinboloa–. Jarlekuaren bestaldean, Ama Birjinarengandik eta semearengandik bereiz, San Jose pentsakor bermatzen da bi eskuekin makuluaren gainean. Bere familiarengandik urru-

---

<sup>1</sup> Mabuse izena Maubeuge izenetik dator, eta hori Gossarten jaioterriaren izena da. Garai hartan Erdi Aroko Hainaut konderrian zegoen, Flandesen, baina gaur egun Frantziako iparraldekoa da, 1678. urtean sinatutako Nijmegeneko Bakearen ondorioz, Frantziari laga baitzieten lurralde hori. Maryan Ainsworth *et al.* 2010eko monografian, artistaren izena agertzen denean, hura bizirik zela sinatu zituen koadro eta marrazkietako modu berean agertzen da, bai eta garaiko dokumentuetan agertzen zen bezala ere; hau da, Gossart. Gossaert izena –«e» letra gehituta– XIX. mendearen amaierako eta XX. mendeko literatura espezializatuan agertu zen. Ikus Ainsworth/Alsteens/Orenstein 2010.



1. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Familia Santua*, c. 1525-1530  
Olioa haritz-oholean. 55,9 x 42 cm  
Bilboko Arte Ederren Museoa  
Inb. zenb. 69/110



2. Alberto Dürero (1471-1528)  
*Familia Santua*, c. 1492-1493  
 Lumaz egindako marrazkia, kolore marroi ilunez  
 29 x 21,4 cm  
 Kupferstichkabinett, Staatliche Museen zu Berlin  
 Inb. zenb. KdZ 4174



3. Filippino Lippi (1457-1504)  
*Familia Santua, San Joan Bataiatzailearekin eta Santa Margaritarekin (Tondo Warren)*, c. 1495  
 Tenpera eta olio a oholean. 153 cm (diametroa)  
 Cleveland Museum of Art  
 Inb. zenb. 1932.227

tiratuta dago, hala fisikoki nola psikologikoki. Aurrera begira dago, eta badirudi gonbit egin nahi diola margolana ikusten duen pertsonari lekukoa izan dadin harekin batera, ohar dadin bere aitatasunaz eta Kristoren lurreko aita izateko duen zeregin mugatuaz<sup>2</sup>. Familia Santuaren tratamendu ez-narratibo hori XV. mendearan amaieran garatu zen, gero eta debozio gehiago baitzegoen San Joserekiko, errukiaren eta umiltasunaren eredu eta Ama Birjinak eta Haurrak lurrean zuten babeslea zen aldetik, eta debozio horri erantzuna eman nahi baitzitzaion. 1479. urtean, Sixto IV.a aita santuak jaiegun bat jarri zuen haren ohorean, eta «Broeders des gemeenen levens» erkidegoak (Bizitza komunekoa) 1490. urtean argitara eman zuten *Historiae van den heiligen Josef (San Joseren historia)* lanaren bidez, are gehiago handitu zen santuaren ospea<sup>3</sup>.

Lehen planoan irudikatutako Familia Santua zen garai hartako Anberesko artisten gairik gogokoenetako bat, bereziki Joos van Cleve eta bere tailerreko gairik gustukoena. Hala ere, honako hau ez da gai hori jorratzen duen Gossarten ekoizpeneko lan bakarra<sup>4</sup>. Gaiari nola heldu pentsatzeko, ziurrena Gossartek Alberto Dürerorengana joko zuen, bere ohiko inspirazio-iturria izan baitzen. Marrazki goiztiar batzuek argi islatzen dute San Jose helduaren bakardadea Familia Santuaren irudikapenetan, funtsezkoak diren adibide batzuetan argi geratu denez: 1491. urte inguruko Erlangengo marrazkia (Univertätsbibliothek) eta 1492-1493 inguruko Berlingo marrazkia [2. ir.]<sup>5</sup>. Zehazki, Joseph Leo Koernerrek adierazitakoari jarraiki, «bakartze psikikora zuzentzen duen barneko kontenplazio-egoerak»<sup>6</sup> piztu zuen Düreroren arreta, eta Gossartek ere egoera hori nabarmentzea erabaki zuen. Horrez gain, Herzogek beste iturri bat adierazi zuen, Filippino Lippiren *Tondo Warren* laneko San Jose [3. ir.], eta bi eskuekin makulu batean bermaturik dauden bi zahar bizardun eta zimurtuen artean dauden antzekotasunak<sup>7</sup>. Arreta gutxi egin zaie Gossartek Erromarako bidaiari 1508-1509. urteetan zeharka-

2 Ama Birjinarengandik eta Haurrarengandik urrutiratutako behatzaile gisa San Josek betetzen duen zereginari dagokionez, ikusi Foster 1978, 231.-233. or., eta 220. orriko adibideak.

3 Ibid., 60.-63. or. Era berean, ikusi Butler 1956, I. libk., 631.-633. or.; Filas 1967; Wilson 2001.

4 Gossarten Familia Santua laneko marrazkiei dagokienez, ikusi Ainsworth/Alsteens/Orenstein 2010, 69., 70. eta bereziki 71. katalogoa.

5 Ikusi Koerner 1993, 11. eta 15. or., 4. eta 6. ir.

6 Ibid., 14. or.

7 Herzog 1969, 333. or.





4. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Ama Birjina Haurrarekin*, c. 1527  
 Olioa haritz-oholean. 63 x 50 cm  
 Museo Nacional del Prado, Madril  
 Inb. zenb. P01930

tu zituen hiriei. Felipe Borgoinakoaren misio diplomatikoko kidea zen, eta Julio II.a aita santuari bisita egitera joan zen. Marino Sanudok bere egunkarian jasota utzi zuenez, egin zituzten geldialdien artean, Florentzian geratu ziren, eta litekeena da orduan Gossartek Lippiren obra ikustea<sup>8</sup>.

Diego Angulo Íñiguez izan zen Bilboko *Familia Santua* lanaren eta Pradoko Museoko *Ama Birjina Haurrarekin* [4. ir.] lanaren arteko lotura estilistikoa adierazi zuen lehenengoa; lehen margolana Gossarten lan berantiarrekin jarri zuen harremanetan<sup>9</sup>, eta iritzi hori areago indartuta geratu zen 1965. urtean Rotterdamen eta Brujasen artistari buruz egindako erakusketan argitaratutako katalogoan<sup>10</sup>. Izan ere, bi margolan horietan Ama Birjinaren eta Haurraren buruetarako erabilitako bi motek antzekotasun nabarmenak dituzte. Bereziki, giza azalaren koloreek dituzten tonu zuri gordinek oso leunduta dagoen marmolaren itxura ematen diete. Gossartek maizago egin zuen aukera estetiko hori 1520ko hamarkadaren bukaerako lanetan. Horretarako, Gossartek sakon landu zituen giza azalaren koloreak, berunezko zuria emanaz, Bilboko lanaren erradiografiak argi utzi duen gisan. Hori Ama Birjinaren buruan sumatzen da batez ere, maskara itxura baitu gehienbat [5. eta 6. ir.]<sup>11</sup>. Bilboko koadroan egiaztatu gabe dago, baina batzuetan Gossartek geruza gris bat jartzen zuen giza azalaren koloreen azpian, eta horrek areago nabarmentzen du horien itxura nakarrezkoa eta opaleszentea<sup>12</sup>.

8 Erromako misioan izandako geldialdiei buruz, ikusi Sanudo 1879-1903, 7. libk. (1882), batez ere 684., 689., 694., 716., 746., 748., 756. kol.; 8. libk. (1882), 14-15 kol.

9 Angulo 1937, 194. or.

10 Rotterdam/Brujas 1965, 165.-168. or., 26. kat.

11 Maryan Ainsworthek hitz egin eta azaldu zuen lehenbiziko aldiz gai hau: Ainsworth/Alsteens/Orenstein 2010, 83. or., 84. eta 85. ir.; 5. or.

12 Ibid., 85. or.; 10. kat., 154.-157. or.



5-6. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Familia Santua*  
Bilboko Arte Ederren Museoa  
Ama Birjinaren aurpegiaren  
xehetasuna eta xehetasun  
beraren erradiografia

Erkaketa sinesgarri bat da figura hori Berlingo *Ama Birjina Haurrarekin* izeneko lanean agertzen denarekin parekatzea [7. ir.]. Hor, begitarteko banakako ezaugarriak ia modu berean daude marraztuta eta jarrita. Hala ere, desberdintasun nabarmena dago, Bilboko laneko Kristo Haurraren eta Madril eta Berlingo haurren bihurrikatzeetan, hezurrik gabeko gorputz bihurtun batenak. Izan ere, Haurraren eskuineko hankaren marrazkia –pixka bat desegokia dena– eta ezkerreko besoak lepoarekin duen lotune arraroa ikusita, aditu batzuek –berezi Herzogek– pentsatu dute Bilboko margolana tailerreko ekoizpen bat dela<sup>13</sup>. Hala ere, Gossarten usterako, askoz garrantzitsuagoa zen irudia bihurtzeko mugimendua adieraztea zuzentasun anatomikoa erakustea baino, eta hori argi ikus daiteke marrazki eta grabatu askotan, Adan eta Evaren irudikapenetan barne<sup>14</sup>. Izan ere, Ama Birjina Haurrarekin irudikatzen duten 1520ko hamarkadako koadroetan, Gossartek behin eta berriz ikertzen du haurraren gehiegikeriazko mugimendua, Haur Salbatzailearen bizi-oinarria adierazteko asmoz<sup>15</sup>.

Materialak eta teknikak ikertzeko 2010. urtean egin ziren azterketa tekniko bidez jakin ahal izan dugu zer egin zuen Gossartek koadro horretan ohiz kanpoko emaitza lortu ahal izateko<sup>16</sup>. Bere margolan guztietan gertatzen den moduan, Bilboko taula haritz gainean margotuta dago, eta zura, ziurrena, Baltiko aldekoa da<sup>17</sup>. Nabarmendu behar da euskarriaren ertzak ez direla inoiz beheratu, ezta indartu ere, eta jatorrizko lodierari eusten diola, hau da, 1,55 cm dituela<sup>18</sup>. Gossarten taula batzuek –besteak beste, Royal Collectioneko *Adan eta Eva*, Berlingo *Adan eta Eva*<sup>19</sup> eta Bilboko *Familia Santua* lanek– taulen banatzaileen jatorrizko markak dituzte agerian atzealdean; pitzadura horiek lerrozuzenak dira gutxi gorabehera [8. ir.], baina, haiek erakaturik ere, ezin dugu jakin iturri berekoak ote diren.

13 Herzog 1969, 332. or.

14 Ikusi Ainsworth/Alsteens/Orenstein 2010, bereziki 64., 65., 69., 72., 82., 93., 109. eta 112.-113. kat.

15 Ibid., 13.-21. kat.

16 Arte-Lab, S.L. enpresako Andrés Sánchez Ledesma eta María Jesús Gómez García pigmentuen analisiak egin dituzte, besteak beste, PLM, analisi mikrokimikoak, HPTLC, FTIR eta SEM-EDX. Margolanaren ertzetatik jaso zituzten lagin guztiak. Bilboko Arte Ederren Museoa erradiografia eta erretektografia infragorria egin da. Oraingoz ezin izan da dendrokronologiarik egin. Gainera, 1937an Pradoko Museoa egin zen zaharberritze-lanaz gain, 1968an Gonzalo Perales Soriano zaharberritzaileak margolana garbitu zuen. Bilboko Arte Ederren Museoko Kontserbazio eta Zaharberritze Sailean kontserbatzeko tratamendua eman zioten 1978an, eta 2010ean zaharberritu zuten.

17 Gossarten taulen zur-motari eta dendrokronologiari buruz gehiago jakiteko, ikusi Peter Kleinen txostena: Ainsworth/Alsteens/Orenstein 2010, 429.-433. or.

18 Gossarten beste taula batzuek eutsi egin diote jatorrizko lodierari, eta Bilboko lanak duen lodieraren antzekoa da hori. Anberesko *Gizon baten erretratu* lanak 1,9 cm-ko lodiera du, eta Royal Collectioneko *Adan eta Eva* lanaren lodiera 1,9 eta 2,5 cm artean dago.

19 Berlingo *Adan eta Eva* laneko zuraren banatzailearen markari dagokionez, ikusi Ainsworth/Alsteens/Orenstein 2010, 69. or., 65. ir.



7. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Ama Birjina Haurrekin*, c. 1525-1530  
 Olioa oholean. 47,7 x 38,2 cm  
 Gemäldegalerie, Staatliche  
 Museen zu Berlin  
 Inb. zenb. 650

Euskarriak bi panel ditu, egurraren hariaren luzetara jarrita. Ertz zorrotzarekiko lotunea oso zehatza da, zaila baita bereiztea, baita erradiografiaz ere. Azken horretan, bi buruxka txertatu azaltzen dira nabarmen, panelen arteko lotura indartzeko. Buruxka bat Ama Birjinaren perlazko diademaren gainean dago; bestea, berriz, Ama Birjinaren eskuineko eskuaren eta Jesus haurraren ipurmasailen gainean. Beheko buruxka hurbilago dago taularen ertz horretatik goiko buruxkari dagokion ertzetik baino; eta, hortaz, beharbada, taularen ertzak gehixeago jaitsiko zituzten behealdean<sup>20</sup>. Eskuineko panelean tentsioa sortu, eta haustura bat izan zen, taula bertikalean gurutzatu, eta San Joseren irudia eta Ama Birjinaren ezkerreko belauna zeharkatzen dituen [9. eta 24. ir.].

Erradiografian egurraren haria oso nabarmen agertzen da, baina ez da aldaketarik ikusten betearazteko prozesuan. Uste izatekoa zenez, Flandesko teknikari jarraiki, margolariak erreserbako alde batzuk utzi ditu, konposizioko zenbait osagai alde horietan kokatzeko, hala nola, irudiak, lorea eta atzealdeko arkitekturako erorkinak. Bereziki nabarmentzen dira kontraste erradiografiko gehiago egiten dutelako, zutabeak dekoratzen dituzten brontzezko aplikazioetako distira horiak, zerua, Ama Birjinaren tunikako punturik argitsuenak,

<sup>20</sup> Buruxka txertatuen luzera 6,5 cm ingurukoa da, eta haiei eusten dieten zuloek neurri hauek dituzte: 7,7 cm x 0,8 cm. Goiko buruxka ertz horretatik 12,6 cm-ra dago, Ama Birjinaren buruaren gainean, eta behekoa 10,5 cm-ra ertzetik, Haurraren mokor gainean.





8. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Familia Santua*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa  
 Euskarriaren atzealdea, arotzen markekin



9. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Familia Santua*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa  
 Erradiografia



10. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Familia Santua*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa  
 Erreflektografia infragorria

eta haren tunikak eta haurrak dituzten giza azalaren koloreak. Zutabeari eusten dion plintoaren beheko aldeko zezena kolore gris argi lisoz pintatu zen, eta, gero, pintzelkada ilunagoak gehitu zitzaizkion, koskadun ertza definitu ahal izateko. Nabaria da pinturaren kontserbazio-egoera ona dela, hutsuneak ez baitira garrantzi handikoak. Tonu ilunez ageri dira erradiografian. Hala ere, San Joseren irudiaren gainean dagoen hutsuneak 17 cm inguruko luzera du. Ertzek krakeladura fin bat dute, beharbada talka gogor baten ondorioz sortua.

Itxura denez, *Familia Santua* markorik gabe margotu zen, eta taularen ertzak jan gabe daude, baina ebakita daude. Pintura-geruzak ez du bizirik, eta erabat estaltzen du taularen azalera. Orain dela gutxiko aurkikuntzen arabera, Gossartek ez zuen beti prozedura bera erabiltzen taula markoari lotzeko: batzuetan, hasieratik egiten zuen, eta, bestetan, taula margotu ondoren gaineratzen zuen markoa<sup>21</sup>. XVI. mende hasierako praktikako trantsizio-aldi bati dagokio hori, eta joera berri baten hasiera adierazten du, markoak eta margolanak, bakoitza bere aldetik egiteko joera hasi baitzen.

Bilboko *Familia Santua* lanetik jasotako pintura-lagin eta zeharkako ebaketen kopuru zehatz bat oinarritzat harturik, ondorio batzuk atera ditzakegu. Laginak Ama Birjinaren eta San Joseren jantzietatik jaso ziren, eta kolore urdinak San Joseren kaputxatik eta zerutik. Uste izatekoa denez, lagin horietan guztietan kaltzio karbonatoaren oinarritzko prestakin bat zegoen. Prestakin horren gainean, berunezko zuriaren inprimatze aski lodi bat jarri zen. Ezin izan da zehaztu azpian dagoen marrazkia –erreflektografia infragorriaren bidez ageri dena [10 ir.]– geruzaren azpian edo gainean egin ote zen –Gossarten beste margolan batzuetan antzeman denez<sup>22</sup>, lagin batek ere ez baitu azpiko marrazkiaren substraturik. Ehundura gorrietan, bermiloia, berunezko zuria, kaltzio karbonatoa eta lur gorria zeuzkan geruza gorri opaku bat estali egin zen, kotxinilla zuen laka gorritzko lausotze bat emanda [11. ir.]. San Joseren kaputxako kolore urdinek azurita eta berunezko zuria dituzte [12. ir.]. Hortaz, aurkikuntzei esker, garai hartako pinturan guztiz ohikoak ziren praktikak azaldu ahal izan dira.

1520ko hamarkadan egin zuen obran, Gossartek estilo eskematiko eta soilagoa landu zuen azpian dagoen marrazkirako; pintzelez gaingiroki egindako inguruak nabarmendu zituen marra zabalak eta elkar gurutzatuak eginez paraleloan, irudiei forma gehiago emateko. Denboraren poderioz, gero eta maizago erabili zuen kalko-kartoia, konposizioetako osagai nagusiak transferitzeko. Hori ageri-agerian dago azpiko marrazkian, formen inguruak oso zurrinak baitira eta marrak urri samarrak. Bilboko *Familia Santua* lanaren azpian antzeman den marrazkia ia ez da nabarmentzen; gehienbat irudien inguruak dira, eta, horrez gain, erregelaz egindako marra batzuk agertzen dira, arkitekturako osagaien aurretiazko marrazkia kokatzeko eginak. Hori bat dator erabat Gossartek 1520ko hamarkadako azken urteetan izan zuen ohiko jardutearekin; hala ere, garai horretako lan guztietan ez da nabaritzen azpian marrazki bat dagoenik<sup>23</sup>.

Nadine Orenstein Gossarten marrazki batean oinarrituta dagoen 1530. urte inguruko *Herkules eta Deyanira* xilografia aztertzean ohartu denez, «bikoteak hutsune bat betetzen du, arkitekturako hondakin erromatar klasikoz beteriko biltegi-areto bat ematen duen hutsunea, zutabez eta zutoinez hornitutako atal zabalez mugatuta dagoena»<sup>24</sup>. Era berean, deskribapen hori baliagarria izan liteke Bilboko *Familia Santua* lanaren dekoratuari begira, eta beste lan berantiar batzuk ekartzen dizkigu gogora, hala nola, Bostongo *Maria Magdalena* [13. ir.] edo Norfolkeko *Ama Birjina Haurrarekin* [14. ir.]. Horrelako konposizioetan, espazioa definitzeko, argi-itzalen kontraste nabariak sortu dira arkitekturretan<sup>25</sup>. Gossartek egituren deskribapen ilusionista egiteko duen trebetasun miresgarria oso lagungarria da espazioaren eta formaren sentsazioa handiagotzeko.


21 Maryan Ainsworthek beste kasu batzuk aipatzen ditu: Ainsworth/Alsteens/Orenstein 2010, 70.-71. or.

22 Ibid., 71. or.

23 Ikusi Maryan Ainsworthen beste iruzkin batzuk: Ainsworth/Alsteens/Orenstein 2010, 74.-78. or.

24 Ibid., 422. or., 118. kat.

25 Ibid., 38. eta 55. kat., a-c.




11. Jan Gossart (c. 1478-1532)

*Familia Santua*

Bilboko Arte Ederren Museoa

San Joseren mantu gorritik hartutako lagin baten ebakidura estratigrafikoa (280 X)

1. Kaltzio-karbonatoz osatutako kolore zuriaren prestaketa (> 160)
2. Albaialdez osatutako kolore zuriaren inprimaketa (25-30  $\mu\text{m}$ )
3. Albaialdez, kaltzio-karbonatoz eta lurrez osatutako kolore gorria (25-30  $\mu\text{m}$ )
4. Laka organiko gorritz osatutako lausodura, kotxinilaren kloratzailearekin, albaialdearekin eta kaltzio-karbonatoarekin (35-40  $\mu\text{m}$ )



12. Jan Gossart (c. 1478-1532)

*Familia Santua*

Bilboko Arte Ederren Museoa

Zeruaren kolore urdinetik hartutako lagin baten ebakidura estratigrafikoa (280 X)

1. Kaltzio-karbonatoz osatutako kolore zuriaren prestaketa (145  $\mu\text{m}$ )
2. Albaialdez osatutako kolore zuriaren inprimaketa (25-30  $\mu\text{m}$ )
3. Albaialdez eta azuritaz osatutako kolore urdina (25-30  $\mu\text{m}$ )
4. Arrea
5. Zinkaren zuriz eta itsasoz bestaldeko urdin sintetikoaz osatutako berpintaketa (0-20  $\mu\text{m}$ )

Bilboko koadroan, argitasun distiratsuz beteriko emaitza harrigarriak lortzen ditu irudien atzealdean dauden zutabeetan, zehazki, zutabeetako urre- edo brontze-koloreko dekorazioetan [15. ir.]. Sakontasunaren sententzia sortzen du argia trebetasunez modulatu, gelako perspektibako hormetan. Gossartek marra bertikal bat egin edo grabatu zuen zutabe bakoitzaren erdian, beraien bolumen biribilduaren argi-puntua kokatzeko. Zutabe horien ingurutako argiak, berriz, areago nabarmentzen du haien hiru dimentsioko forma. Pintzelkada trebeak agerian uzten du Gossartek objektu-sorta zabal bat egiteko zuen maisutasuna, hala perla opaleszen-teak, belo sotilak eta artilezko gainjantzi astunak, nola arrosa baten hosto leunak.

Gossartek gaia eta konposizioa lantzeko proposatzen duen ikuspegi berritzailearen ondorioz eta, era berean, pinturaz zuen aparteko jakintzaren ondorioz, ospe handia izan zuen bere garaian. Hortaz, bada, ez da harritzekoa margolarien hurrengo belaunaldiak Bilboko *Familia Santua* lanaren imitazioak egitea, bereziki Anberesko Pieter Coecke van Aelsten tailerrean<sup>26</sup>. Hiri horretan, Gossarten obrari buruzko bariazioak jende berriarengana heldu ziren, berehala zabaldu baitziren arte-merkatuko erosle suharren artean.

<sup>26</sup> Marlier 1966, 237.-240. or., 176., 177., 179., 180. ir.



13. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Maria Magdalena*, c. 1525-1530  
 Olioa oholean. 49,5 x 39,4 cm  
 Museum of Fine Arts, Boston  
 Inb. zenb. 1991.585



14. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Ama Birjina Haurrarekin (Norfolk Triptikoaren erdiko panela)*, c. 1525-1530  
 Olioa oholean. 47,6 x 36,8 cm  
 Chrysler Museum of Art, Norfolk, Virginia  
 Walter P. Chryslerren dohaintza  
 Inb. zenb. 71.491



15. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Familia Santua*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa  
 Xehetasuna



## Obraren historia

Azterketa honen zati baten ardatza *Familia Santua* lanaren historia berreraikitzea izan da, zehazki, jabeak zein izan ziren jakitea, eta obraren ibilbideari jarraipena egitea, ahalik eta estuen, Bilboko Arte Ederren Museoara iritsi zen arte. Gai horiei buruz ikertzeko, funtsezkoa izan da, lehenik eta behin, agiritegi historiko batzuetan gordetako eskuizkribu zaharrak kontsultatzea –gehienak testamentuak–, obrari buruzko aipamenak bilatzeko eta, era horretan, jabe zaharrekin lotu ahal izateko, jarraian azalduko dugunez. Esan beharra dago kontsulta horietako batzuk etsigarriak izan direla; baina aurkikuntza batzuk izan dira, eta, horien bidez, agiritan jaso ahal izan dugu orain arte hipotesiak baino ez ziren kontuak. Era berean, gero azalduko ditugu Espainiako Gerra Zibilaren garai tragikoan obrak izan zituen gorabeherak, garai<sup>27</sup> hartako agiri argigarrien bidez datu berriak atera baitira argitara. Azkenik, Bilboko Arte Ederren Museoak margolana eskuratzeko egin zituen urratsak azalduko ditugu.

Ez dakigu zein urtetan iritsi zen margoa Flandestik Espainiara, baina mendeak eman ditu leku jakin batetik mugitu gabe, Cuerva hiribilduan, Toledotik 28 kilometrora. Hori ikertu beharreko pista bat zen, jabe zaharrak zein ziren jakiteko. Izan ere, zantzu guztien arabera, familia leinargi eta boteretsu bat izan omen zen jabea, Lasso de la Vega familia, hiribilduko jauntxoak<sup>28</sup>. Obra Toledoko ingurunean kokatzeko, familia horrek Cuervan utzitako aztarnei jarraitu behar diegu; esate baterako, horra hor, Santiago Apostoluaren parroquia-elizaren erai-kuntza –hiribilduko erlijiozko monumenturik nabarmenena<sup>29</sup>–, karmeldar oinutsen komentuarien sorrera, eta, azkenik, elizaren barruan erlikien kaperaren eraikuntza. Leku horiek guztiak Lasso de la Vega familiari lotuta daude, eta harreman estu-estua dute hemen aztergai dugun margolanarekin.

Santiago eliza [16. ir.] Lasso de la Vega familiaren panteoia izan zen bi mendetan baino gehiagotan. Eliza XVI. mendearen hasieran hasi zen eraikitzen, Sancha de Guzmánen (?-1537) eta Garcilaso de la Vegaren (?-1512) ekimenez, zeintzuek Cuerva hiribildua erosi baitzuten 1493. eta 1499. urteen artean –1493.ean ezkondu ziren–<sup>30</sup>. Garcilaso de la Vega y Guzmán izan zen haien iloba (Toledo, c. 1498-1564), Arcos, Batres eta Cuervako jauna. 1548an Aldonza Niño de Guevararekin ezkondu zen (Toledo, c. 1533-Cuerva, Toledo, 1603). Aldonzaren neba, bestetik, kardinal eta inkisidore nagusia izandako Fernando Niño de Guevara izan zen, 1600. urte inguruan Grecok erretrataturakoa. Aldonzak karmeldar oinutsen komentu bat sortu zuen, behin-behinekoa, bere jabetzako etxeetako batean, eta 1614. urtean behin betiko eraikuntza egin zen [17. ir.]. Aldonza bertan sartu eta itxi zen, 1603. urtean hil zen arte; moja karmeldarren ordenako arropa jantzi zuen, baina sekula ez zituen zin-hitzak esan<sup>31</sup>.

---

27 Eskerrak eman nahi dizkiogu Bilboko Arte Ederren Museoeko Artxiboko burua den Mikel Urizarri, dokumentu horiek eskuratzeko egin dituen kudeatze-lanengatik.

28 Kontuan izan kontsultatutako era askotako eskuizkribu ugarietan Lasso deitua era berean agertzen dela «s» bakarra batekin edo birekin idatzita. Guk aipatzen dugunean, «s» bikoitza erabiltzen dugu, era horretan ikusi baitugu idatzita sarriago.

29 Ikusi horri dagokionez Ríos de Balmaseda 1998. Eskerrak eman nahi dizkiogu ikertzaile horri, informazio ugari eman baitugu eskuzabaltasunez. Ikusi, era berean, Mariás 1983-1986, 4. libk. (1986), 162.-166. or. Estatuko monumentu historiko-artistiko izendatu zuten eliza, 1975eko uztailearen 10ean. Ikusi Cuervako Udalaren web orri ofiziala: <http://www.cuerva.org/parroquia.htm> (kontsulta: 2009-12-28). Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Lucía Castrori ere, Cuervako elizaren argazkiengatik.

30 Batresko jaurerriko oinordekoa zen Sancha de Guzmán, eta Garcilaso de la Vega Leongo komendadore nagusia izan zen, bai eta errege katolikoaren enbaxadorea ere Erroman, 1494tik 1499ra arte. Senar-emazteek errege-ahalmena jaso zuten Batres oinordekotza Cuerva hiribilduan sartzeko 1504an. Handik urte batzuetara, Garcilasok Arcosko oinordekotza jarauntsi zuen. Hil zenean, bere seme premua zen Pedro Lasso de la Vegak –«el Comenero» izengoitiz ezaguna zenak– jarauntsi zituen hiru hiribilduen oinordekotza: Arcos, Batres eta Cuerva. Bere bigarren semea Garcilaso de la Vega poeta izan zen (Toledo, c. 1499-Niza, 1536). Ikusi Vaquero/Ríos de Balmaseda 2001, 18.-20. eta 24. or.

31 Ondoko lanean Aldonza aipatzen da, eta karmeldar oinutsen erkidegoko kidea dela zehazten da: *Cartas de Santa Teresa de Jesús, madre y fundadora de la reforma de la orden de Nuestra Señora del Carmen, de la primitiva observancia*. Madrid: Impr. del Mercurio (Joseph de Orga inprimatzailea), 1752, I. libk., XXIV. gutuna, 194. or.: «17 En Cuerva la Madre Aldonza de la Madre de Dios en el siglo Doña Aldonza Niño de Guevara Madre de D Rodrigo Lasso Niño de Guevara Conde de Añover bien conocido en España en la Corte del Señor Rey Don Felipe II y en Flandes en la del Señor Archiduque Alberto de quien fue Ministro y Consejero mayor Y allí mismo la Madre Leonor Maria del Santísimo Sacramento nieta de la Madre Brianda e hija de los Condes de Arcos».



16. eta 17. Santiago Apostoluaren elizako portada nagusia; kalezuloa eta karmeldar oinutsen komenturako sarrera, eta Santiago Apostoluaren elizako iparraldeko portada, Cuerva, Toledo

Ezkontza horretatik jaio ziren, batetik, Pedro Lasso de la Vega Niño y Guzmán (Toledo, 1559-1637), Arcosko I. kondea, eta, bestetik, Rodrigo Niño Lasso de la Vega (Toledo, 1561-Mariemont, Belgika, 1620), Añoverreko II. kondea. Biek ala biek laguntza garrantzitsua eman zuten Santiago eliza zabaltzeko eta aberasteko. Rodrigok Flandesera jo zuen 1602. urtean, eta hantxe geratu zen, Austriako Alberto eta Isabel Clara Eugenia artxidukeen zerbitzuan, bere testamentuan irakur daitekeenez: «Don Rodrigo Niño Lasso de la Vega Caballero de la Orden de Santiago Comendador de Montiel y La Ossa, Sumillier de Corps del ssmo. Archiduque Alberto su Camarero mayor y Caballerizo mayor de sus Altezas»<sup>32</sup>. Hantxe egon zen hil zen arte: 1620ko urriaren 5ean hil zen, Mariemont errege-lekuan, Hainaut konderrian, Belgikako hegoaldean<sup>33</sup>. Rodrigo ia bi hamarkadaz egon zen Flandesen, eta, hortaz, zentzuzkoa da pentsatzea, familia horretako kide guztien artean, bera izango zela egokiena Gossarten margolana Espainiara eta, zehazki, Cuervara eramateko. Hipotesi hori, gainera, Diego Angulok aipatu zuen 1937. urtean, margolana ikertu zuenean<sup>34</sup>.


Datu hori erkatzeko, lehenik eta behin, osorik irakurri dugu Rodrigo Niñoren testamentu zehatz eta luzea [18. ir.], 1620. urtean hil zenean idatzitakoa, eta ondo egiaztatu dugu agiri horretan margoa aipatzen ote den. Hala ere, ez da emaitza onik izan alde horretatik. Testamentuaren arabera, Añover kondeak zuen benetako interesa, gehienbat, erlikiak bildumatzea zen, bere ahaleginez bildu eta suntsipen ikonoklastatik gorde ahal izan zituen erlikiak. Izan ere, 1566. urtetik aurrera suntsipen ikonoklasta izan zen Flandesen, eta bera han egon zen denbora guztian iraun zuen. Erlikien zalea zela argi nabarmentzen da, alde batetik, haietako asko aipatzen dituelako, eta, bestetik, haiek gordetzeko duina zen leku bat eginarazi zuelako, Pedro anaiarekin batera. Erlikien kapera deitutakoa 1616. eta 1620. urteen artean eraiki zuten, Cuervako Santiago elizaren barruan<sup>35</sup>. Kapera handia da, oinplano karratukoa, eta ganga bat du presbiterioaren eskuinaldean. Hor sar-

32 Colección de documentos referentes a D. Rodrigo Niño y Lasso Conde de Añover, fallecido en 1620, estando precedido de una relación de documentos que se contienen en este libro, 1620. Madrid: Archivo del Instituto de Valencia de Don Juan, mss. 26-I-11, fol. 28v. Eskerrak eman nahi dizkiet instituzio horretako Cristina Partearroyo kontserbatzaileari eta M.ª Ángeles Santos Quer liburuzainari, dokumentuak kontsultatzeko eman dizkidaten erraztasunengatik.

33 Aurreko oharrean aipatutako eskuizkribuan bere heriotzako eguna irakur daiteke (29v or.).

34 «La Sagrada Familia del convento de Cuerva, por Gossaert», Angulo 1937an, 2. epigrafea, 194.-197. or., III. ir.

35 Ríos de Balmaseda 1991. Ikusi egile horren lan hau: Ríos de Balmaseda 1998, 33.-40. or. Era berean, ikusi Esteban 2005, 27. eta 28. or. Erlikien kaperak Juan Bautista Monegroren arrastoari jarraitzen dio. Eliza 1635. urtean bukatu zuten, lau ataleko dorre herrerrara eraiki zutenean. Pedro de Lizardárate eta Jorge Manuel Theotocópuli –Grecoren semea– aparejadoreek gainbegiratu zituzten lanak. Ikusi web hau: <http://www.cuerva.org/parroquia.htm> (kontsulta: 2009-12-28).



18. Añoverko kondea zen Rodrigo Niño y Lassoren testamentua, 1620, 1. or. Valencia de Don Juan Institutuko Artxiboa, Madril

tu ziren santu askoren gorpuzkinak. Rodrigok hezkuntza zorrotza jaso zuen, espiritualitate katolikoaren eta Kontrarreformako ideien ildoan, eta erlikia horiek gurtu zituen beti. Erlikien kaperaren sorrera aipatzen duen eta gorderik dagoen eskuizkribuak 1615eko data du; bertan, Rodrigok argi utzi zuen, batetik, zein lekutan lurperatu behar zuten<sup>36</sup>, eta, bestetik, zein zen kaperaren helburua: «[...] y havemos ordenado que se haga una capilla al lado de la epístola del altar maior de la dicha capilla maior, donde poner y colocar muchas reliquias que yo he adquirido de diversas partes fuera de aquellos Reynos con mucha costa y trabajo haziendolas adornar lo mejor e mas decente e ricamente que he podido [...]»<sup>37</sup>.

Argitu behar dugu eskuizkribu horretan ez dela agertzen kaperak geroago barruan bilduko zituen objektuen zerrendarik, besteak beste, bost urte igaro arte ez zituztelako eraikitze-lanak bukatu; hala ere, Rodrigok aipatzen du era askotako erlikiak bidaliko zituela, hiltzen zen arte<sup>38</sup>. Era berean, testamentuan jasota utzi zuen, behin hil ondoren, Espainiara eraman zitzaten Flandesen zeuzkan erlikiak; eta haietako asko urrez eta zilarrez egindako eta harri bitxiz apaindutako erlikia-ontzi bikainetan sartuta zeuden<sup>39</sup>. Erlikia horien ondoan, Rodrigok kapera ondo apainduta egon zedin nahi izan zuen, hainbat objektu baliotsuz hornituta, eta horien artean pinturrek ere egon behar zuten, Rodrigok berak kapera sortzeko agirian aipatzen duenez: «[...] las reliquias, plata, bronze dorado, pinturas y ornamentos de la dicha mi capilla [...]»<sup>40</sup>. Hargatik, ez da harrizkoa kape-

36 «Digo que por quanto yo y el señor Don Pedro Laso de la Vega Niño, e Guzmán mi hermano Conde de Arcos Maiordomo del Príncipe Don Phelippe quarto n[uest]ro Señor, de un acuerdo y conformidad tenemos tratado de adornar nuestros entierros en la Capilla maior de la iglesia parroquial del Señor Santiago de la Villa de Cuerva, donde es el entierro, de los Señores n[uest]ros Padres y antepassados [...]». *Fundación y Dotación de la capilla de las Santas reliquias de la Villa de Cuerva (Toledo)*, 1615. Madrid, Archivo del Instituto de Valencia de Don Juan, sign. 26-I-9, fol. 2r.

37 Ibid.

38 «[...] muchas cabezas, y muchos y diferentes generos de huessos de diferentes Sanctos y Sanctas con sus testimonios, y assimesmo de las demas reliquias que de oy en adelante embiaré mi vida durante, para colocar en dicha capilla, para que perpetuamente lo esten en ella [...]». Ibid., fol. 22v.

39 «También se llevarán todas las reliquias que traigo conmigo guarnecidas en pequeños relicarios teniendo mucha cuenta de que no se pierda ninguna ni se toque a lo que tienen dentro que esto encomiendo con todo cuidado». Colección de documentos referentes a D. Rodrigo Niño y Lasso Conde de Añover, fallecido en 1620, estando precedido de una relación de documentos que se contienen en este libro, 1620. Madrid, Archivo del Instituto de Valencia de Don Juan, mss. 26-I-11, fol. 327r.

40 *Fundación y Dotación de la capilla de las Santas reliquias de la Villa de Cuerva (Toledo)*, 1615. Madrid, Archivo del Instituto de Valencia de Don Juan, sign. 26-I-9, fol. 22v.



19. Rodrigo de Villandrando (1588-1622)  
*Los Arcos*eko kondesa zen Mariana de Mendozaren erretratua, 1619. urtea  
 baino lehenagokoa  
 Olioa mihisean. 70 x 53 cm  
 Santiago Apostoluaren elizako Erlikien Kapera, Cuerva, Toledo

rako horma apaintzen zuten margoen artean Gossarten taula egotea, Flandestik egindako bidalketa batean sartuta egon baitzitekeen. Testamentuan jasota dagoenez, Rodrigoren desira izan zen, bera hiltzen zenean, erlikiak eta, orobat, berak estimazio handian zituen objektu batzuk bere koinata Marianari eta horren alaba Leonorri –bere ilobari– uztea, hala nola, otoiztegi eramangarria –koinatari bidali ziona<sup>41</sup>–. Hala ere, ezin izan da zehaztu Flandesen egon zen bitartean margolana bidali ote zion Marianari opari gisa.

Gaur egun, mendeetan barrena erlikien kaperaren inguruan izan diren gorabehera guztiak igaro ondoren, kaperaren unerik gorenetan barruan egon ziren gauza gehienak ez daude bertan. Kaperako aldare nagusiaren gainean, Afari Santua irudikatzen duen oihal handi bat ikusiko dugu; Rodrigo Niñok lan hori egiteko enkargua egin zion Luis Tristán -haren testamentuan argi jasota dago<sup>42</sup> margolariari egindako ordainketa-. Horrez gain, tamaina txikiko margo batzuk, eta zenbait erretratu ikusiko ditugu: Mariana de Mendoza koinatarena [19. ir.], haren seme eta oinordekoa izan zen Luis Lasso de la Vegarena (Toledo, 1597-1639) eta horren emaztea zen María Magdalena Pachecorena<sup>43</sup>.

Rodrigo Niñoren dokumentuetan taula horren atzetik egindako bilatze-lanak ez zuen emaitza onik izan<sup>44</sup>, eta, hortaz, bilatze-lanekin jarraitu zen haren anaia zenaren testamentuak aztertuta, hau da, Pedro Lasso

41 «A mi Sra, la condesa de los Arcos, deajo y se le enviará el escritorillo que me sirve de oratorio, con todas sus imágenes y reliquias que tiene dentro que por ser tan grandes las reliquias y saber en la veneración en que las tendrá la suplico le reciba y me encomiende a dios». Colección de documentos referentes a D. Rodrigo Niño y Lasso Conde de Añover, fallecido en 1620, estando precedido de una relación de documentos que se contienen en este libro, 1620. Madrid, Archivo del Instituto de Valencia de Don Juan, mss. 26-I-11, fol. 208r. Jasota dagoenaren arabera, Marianak 1622ko abuztuaren 17an jaso zuen ebanozko zurez egindako otoiztegi eramangarria. Ibid., fol. 237r. Karmeldarren ordenan moja sartu zen Leonor ilobari ondokoa utzi zion: «A la señora doña Leonor mi sobrina por creer que habrá ya cumplido con su buen deseo de ser religiosa no la deajo cosa de este siglo pero quiero que se le lleven las reliquias que traigo y siempre he traído conmigo que en ellas hay un corazón de oro en que está metido un pedazo del corazón de la Santa Madre Teresa de Jesús». Ibid., fols. 208r eta 208v.

42 «Pago a Luis Tristán pintor de la echura de la cena». Ibid., 263r or. Margo horri buruz gehiago jakiteko, ikusi Ríos de Balmaseda 1991.

43 Ikusi Ríos de Balmaseda 1998, 33. or.

44 Rodrigo Niño Lassoren testamentuan ez da aztergai dugun taula aipatzen, baina beste margolan batzuk bai, hala nola, Baratzeko otoitza edo Agurraren Ama Birjinaren taula: «La tabla de Nuestra Sra de la Salutación, [que] se puso por mandado del Conde mi Sr. y demás Albaceas en la Transparencia de la capilla de Cuerva donde están las sepulturas y huesos de dicho Sr. Conde de Añover». Ibid., fol. 256v. Testamentuaren arabera, 21 florin ordaindu zituzten: «a un barbero que limpió los huesos del cuerpo difunto del conde». Gero, Espainiara eramán ziren hezurak kutxatxo batean sartuta («baulejo»), eta Arcosko kondea zen Pedro anaiari eman zizkioten 1622. urtean. Ibid., fols. 315r eta 315v.





20. Jan Gossart (c. 1478-1532)  
*Familia Santua*  
 Bilboko Arte Ederren Museoa  
 Xehetasuna

de la Vegarena; izan ere, ondorengorik izan gabe Rodrigo hil zenean, horrek jarauntsi zituen Rodrigoren ondasunak. Gero, horren emaztea zen Mariana de Mendozaren testamentua ikertu zen, eta, azkenik, bien seme eta oinordekoa izan zenarena, Luis Lasso de la Vegarena, alegia. Hurrenkera kronologikoari jarraiki, lehenik, Mariana de Mendozarena irakurri zen<sup>45</sup>. Testamentu horrek 1626ko abenduaren 12ko data zuen, eta Mariana 1627ko urtarrilaren 7an hil zen, hau da, testamentua egin eta handik bi hilabete ozta-ozta igarota. Azkenik, Marianak bere testamentuan esan zuenari jarraiki, Gossarten margolanaren lehenbiziko aipamena jaso dugu, honela adierazia:


Mando a don Luis Laso mi hijo conde de Añover el oratorio portátil que me dejó el señor conde de Añover [Rodrigo Niño] y la oración del Guerto [sic] la grande que me dejó mi señora madre y la imagen de la rosa que todas tres son las cosas que mas estimo y asi pido al dicho mi hijo lo haga y que las conserve en su Casa y Mayorazgo en quien es mi voluntad queden vinculadas y que no salgan de él<sup>46</sup>.

Egilea nor den adierazi gabe eta «arrosaren irudia» izenpean aipatzen da hor *Familia Santua* lana. Antza de-  
 nez, horrela ezagutzen zuten eta horrela deitzen zioten Lasso de la Vega familiaren ingurunean, eta horrela azalduko da ondoko aipamenetan ere, beti arrosari loturik, margolanean Ama Birjinak Haurri eskaintzen dion loreari loturik, alegia [20. ir.]. Marianak aditzera ematen du estimazio handia ziola margolanari, gehien estimatzen zituen hiru gauzetako bat baitzen. Hori dela eta, margolan horiek ez uzteko eskatu zion Luis semeari, etxeari eta oinordekotzari lotuta edukitzeko, «bertatik atera ez zitezten». Margolana premuek oinordetzan jasotzen zuten oinordekotzari lotuta egotea aski argigarria da, horrek esan nahi baitu ezin zutela bazter utzi, premuarenak ziren lurak eta objektuak betiko ondasunak baitziren izatez<sup>47</sup>. Mariana de Mendo-

45 Mariana de Mendoza, Arcosko kondesa, Leonor de Mendozaren eta Juan Hurtado de Mendoza y Guzmánen alaba zen. Juan Hurtado de Mendoza y Guzmán, berriz, Orgazko hirugarren kondesa izateaz gain, Santa Olallako jauna, Mendibil, Nanclares, Vergueda eta Riberako jauna, Bizkaiko prestamero nagusia, Sevillako laguntzailea, «maestre de campo general» ofiziala, eta printzea zela Felipe II.aren maiordomo nagusia izan zen. Ikusi <http://www.grandes.org.uk/historia/gzas/arcoscde.htm> (kontsulta: 2011-02-10).

46 Carta de testamento y última voluntad de doña Mariana de Mendoza condessa de los Arcos mujer de don Pedro Laso de la Vega Niño Guzmán, conde de los Arcos, 1626. Madrid, AHPM, Archivo Histórico de Protocolos, 2345 protokolo-zenb., fol. 64v. Eskerrak eman nahi dizkiot Maite Rodríguez Torresi, dokumentu hau eta beste batzuk kontsultatzeko eman didan laguntzagatik.

47 1836ko abuztuaren 30era arte, ez zituzten oinordekotzak betiko kendu.



21. Los Arcoseko lehenengo kondearen familia-ondasunen inbentarioa, tasazioa eta salmenta, 1632-1639, 9v eta 10r or. Valencia de Don Juan Institutuko Artxiboa, Madril

zak bere testamentuan aipatzen du gehien estimatzen zituen hiru piezetatik bi iritsi zitzaizkiola —«otoiztegi eramangarria», Rodrigo Niño koinatak utzitakoa; eta «Baratzeko otoitza», bere «ama andrearengandik» oinordetzan jasoa—; hala ere, zoritxarrez, ez du esaten nola eskuratu zuen hirugarren pieza, «arrosaren irudia» izenekoa<sup>48</sup>.

Era berean, margolanari egindako aipamen berri bat aurkitu da Rodrigoren anaia zen Pedro Lasso de la Vegaren dokumentu batean; dokumentu horren izena *Inventario, tasación y venta de los bienes familiares del primer Conde de los Arcos* da, eta haren data 1632. eta 1639. urteen artean finkatu da [21. ir.]. Dokumentu horretan, Gossarten obrari egindako aipamena esplizituagoa da, eta hori oso lagungarria da margolana segurtasun handiagoz identifikatu ahal izateko, «irudi flandestarra» dela jartzen baitu:

Mi sª la condesa de los Arcos [Mariana de Mendoza] mandó en su testamento a su hijo el conde de Añover don Luis Lasso la imagen de la oración del huerto del Luqueto. Y otra imagen flamenca que llaman de la rosa, otra imagen de los cinco santos canonizados con muchas indulgencias que la presento el cardenal Barberino legado a latere del Papa Urbano 8º. Mas el Horatorio Portatil del Conde de Añover, Don Rodrigo con un relicario y pinturas dentro: estas quatro Piezas mando la dicha sª que después de los días de su hijo el Conde de Añover don Luis quedasen vinculadas para su cassa y mayorazgo y sus sucesores en ella<sup>49</sup>.

Azken paragrafo horren bukaeran, Pedro Lassok behin eta berriz errepikatzen du lau pieza horiek oinordetzari lotuta daudela —hemen, lehen aipatutako hiru piezei «bost santu kanonizatuen irudia» gaineratzen zaie—, eta horrek argitzen du zenbateko estimazioan zitutzen. Familiako beste kide batzuen agiriak aurkitu dira, geroxeagoko datakoak direnak; eta horietan bereziki azpimarratzen da hori eta premuari lotuta dauden ondasunak besterentzeko ezintasuna<sup>50</sup>. Besteak beste, arrazoi horrek azaltzen du zer dela-eta egon zen Gossarten margolana Lasso de la Vega familiaren eskuetan, eta zergatik atera zen onik familiak enkanteak egin zituenean.

48 Marianaren aitari buruzko dokumentua kontsultatu zen, Juan de Mendoza y Guzmán Orgazko hirugarren kondeari buruzkoa, baina ez zen emaitza onik izan: Carta de Arras otorgada por Don Juan de Mendoza y Guzmán, conde de Orgaz, a Leonor de Figueroa Guzmán, 1614. Madrid, AHPM, Archivo Histórico de Protocolos, 3482. protokoloa.

49 Hemen, Baratzeko otoitza lanaren egilea aipatzen da, Luqueto, Luca Cambiasso; «arrosaren irudia» lanaren egilea, berriz, ez da agertzen, ziurren ez baitzekiten nor zen. *Inventario, tasación y venta de los bienes familiares del primer Conde de los Arcos*, 1632-1639. Madrid, Archivo del Instituto de Valencia de Don Juan, mss. 26-V-24, fols. 9v eta 10r.

50 Hala gertatzen da kasu honetan: *Inventario de Bienes de Pedro Lasso de la Vega y Figueroa, conde de los Arcos*, Diego Sánchez eskribauaren aurrean, 1699ko abenduaren 9a. Madrid, AHPM, Archivo Histórico de Protocolos, t. 12598, fols. 74r, 74v eta 78r. «Señor de las Villas de Batres y Cuerva, Gentilhombre de Cámara del Rey Nuestro Señor don Carlos Segundo» zen, Luis Lasso de la Vega eta María Pachecoren semea, eta, beraz, Pedro Lasso de la Vega eta Mariana de Mendozaren biloba. Bertan, agindua ematen dio Joaquín semeari, eta haren ondoko guztiei («todos los que le subcedieren»), oinordekotza nagusiko klausulak ez aldatzeko, berak dituen oinordekotza guztiek klausula berberak baitutuzte eta besterentzeko debekua ere bai («las mismas cláusulas y prohibición de enajenación»).

Mariana de Mendoza eta Pedro Lasso de la Vegaren semea, Luis Lasso de la Vega, 1632. urtean hil zen, aita hil baino bost urte lehenago. Hala, aita arduratu behar izan zen ondasunen inbentarioa egiteaz, eta, bertan, hau aipatzen da:

La oración del Guerto. Copia de Luqueto en doscientos cincuenta reales /  
La copia de Nuestra Señora de la Rosa en quarenta ducados<sup>51</sup>.

Eskuizkribu horretan deigarri suertatzen da bi obrei «kopia» deitzea, bertan aipatzen den margolanen zerrendako gainerako lanei ez bezala. Kontu horren azalpen onargarri bat hauxe da: obra horien jatorrizko lanak Cuervako elizan edo elizako erlikien kaperan gordeta egongo zirela, eta, hala izatekotan, pieza horiekiko zuen estimazioa ikusita, beharbada kopia batzuk eginaraziko zituela Cuervan zuen jauregian edo beste etxe batean ikusteko. Horrek era berean argituko lituzke haiei buruz egin ziren balioespen ekonomikoak, oinordekotzari lotutako jatorrizko piezak izan balira, balioespen horiek ez bailukete zentzurik izango. Kopia zirela dioen hipotesia areago berretsita geratu da, pieza horietako bat horrelaxe deituta agertzen baita beste dokumentu batean: «Lo primero un quadro de la oración del huerto copia de la de Luqueto con su marco en doscientos cincuenta Reales»<sup>52</sup>.

Ikusi dugunez, Gossarten *Familia Santua* lanari buruzko hainbat aipamen aurkitu dira –denak XVII. mendekoak–, eta, haiei esker, dokumentuen bidez egiaztatu ahal izan da Lasso de la Vega familiarena zela.

Ez dugu margolanari buruzko berri gehiagorik aurkituko, harik eta XX. mendearen hasierako urteetan Cediilloko kondea zen Jerónimo Pérez de Ayala y Álvarez de Toledo (1862-1924)<sup>53</sup> Cuervako eliza eta komentua ikustera joan zen arte. Instrukzio Publikoko Ministerioak enkargua egin zion *Toledo Probintziako Monumentuen Katalogoa* egin zezan, era horretan, Toledoko probintzian zeuden arte-ondasun guztiak ikertu eta ezagutzera eman ahal izateko. Horretarako, zalgurdi arin batean ibili zen herririk herri, oharrak jasoz eta, aldi berean, bisitatzen zituen lekuetako agiritegiak ikertzen. Azterketa zehatz horren ondorioz katalogoa osatu zuen, baina, hala ere, ez zen argitara eman 1959. urtera arte. Hala, beraz, idatzi eta handik mende erdira arte ez zen atera, bera hil eta hogeita hamabost urte igaro arte. Cuervari hainbat orri eskaini zizkion<sup>54</sup>, historia eta ondare aldetik zuen aberastasuna zela-eta interes handiko lekua baitzen. Orri horietan, Santiagoko parrokia-eliza deskribatu ondoren, elizari erantsitako kaperak aipatu zituen, besteak beste, erlikien kaperak, eta ondokoa adierazi zuen kaperak horretaz:

[...] el piadoso caballero D. Rodrigo Niño y Lasso, Conde de Añover, hijo segundo de D.<sup>a</sup> Aldonza, edificó a su costa la espaciosa capilla de las Reliquias, destinada a guardar dignamente muchas que, expuestas a ser profanadas por los herejes, recogió en varias abadías de Holanda y Zelanda, enviándolas a Cuerva, donde se conservan<sup>55</sup>.

Lerro batzuk beherago, bi objektu baizik ez zituen azpimarratu, erlikien kaperarekin lotu zituen bi objektu. Horietako bat El Escorial<sup>56</sup> monasterioko errataula nagusiaren kopia da; eta bestea, eta hemen ardura diguna, honela deskribatu zuen:

51 *Inventario, tasación y almoneda de los bienes de Luis Lasso de la Vega realizado por su padre Pedro Lasso de la Vega Niño Guzmán a su muerte en 1632, 1632*. Madrid, AHPM, Archivo Histórico de Protocolos, 6167. protokoloa, fol. 391.

52 *Inventario, tasación y venta de los bienes familiares del primer Conde de los Arcos, 1632-1639*. Madrid, Archivo del Instituto de Valencia de Don Juan, mss. 26-V-24, fol. 24r.

53 Cedillo 1959. Cediilloko kondea Fuensalidako kondeen ondorengoa eta Lozoyako markesaren senidea zen –markes horrek bere liburuaren hitzaurrea egin zuen–. Filosofia eta Letretan dokorea, eta artxibozainen eta arkeologoaren kidegokoa izan zen. Toledori buruzko ezagutza sakona zuen, hainbestekoa, non udalak Toledoko kronikagilearen titulua eman baitzion, eta Sociedad Española de Excursiones sozietatearen sortzaileetako bat izan zen 1893an.

54 *Ibid.*, 66.-73. or., 104.-110. zenb.

55 «La gran capilla de las Reliquias, de planta cuadrada, decorada con cuatro pilastras, sobre las que van las pechinas y la cúpula, es greco-romana, de fin del siglo XVI o principios del XVII, y no ofrece en su arquitectura particularidad notable». *Ibid.*, 67. eta 68. or.

56 «En la misma iglesia, en la capilla de las Reliquias: Reproducción del gran retablo de El Monasterio de El Escorial, hecho en madera dura pintada». *Ibid.*, 70. or.



22. Konfiskazio Batzordeko kideak Udal Kontzejuarekin, Cuerva, Toledo  
Espainiako Kultur Ondarearen Institutua, Kultura Ministerioa, Madril

En el convento de religiosas Carmelitas Descalzas (quienes lo tienen en depósito): 108 La Virgen, San José y el Niño. Tabla pintada al óleo. La Virgen sostiene al divino Infante con la mano derecha y con la izquierda le muestra una flor. San José contempla la escena. El dibujo es correcto, suave el modelado y notable la finura de los detalles y accesorios. La decoración arquitectónica es del Renacimiento italiano. Alto, 0,56 m. Ancho, 0,42 m. Pintura española o flamenca italianizada. ¿Siglo XVI? Es obra de excelente mano; propiedad de la capilla de las Reliquias, en la iglesia parroquial, patronato de los antiguos señores de la villa<sup>57</sup>.

Paragrafo hori irakurtzean ateratzen dugun ondorioa da Cedillok Gossarten *Familia Santua* deskribatzen duela eta, nahiz eta egilea nor den ez jakin, argi zehazten duela «esku bikaineko obra» dela, eta haren neurriak guztiz bat datozela obrarekin; horrek, nolabait, areago indartzen du obraren identifikazioa. Bestetik, modu kategorikoan adierazten du taula «erlikien kaperaren jabetza» zela; eta, era horretan, egileak gakoia ematen du kaperaren jabetza zela jakiteko, eta ez karmeldar oinutsen komentuko jabetza, nahiz eta hor egon gorderik berak ikusi zuen garaian. Cedillok, ziurrena, Santiago elizako agiritegian lortuko zuen datu hori. Izan ere, eliza ia erabat suntsitu zuten Espainiako Gerra Zibilean, karmeldarren komentua eta liburutegia bezala. Horrek nolabait berretsiko luke hipotesia, hau da, Gossarten taula erlikien kapera apaintzen zuten margolanetako bat izango zela. Bestalde, beharbada segurtasun-neurriak zirela-eta egongo zen komentuan gordeta<sup>58</sup>.


1936ko uztailean Gerra Zibila piztu eta handik egun gutxira, Cuervako karmeldarren erkidegoak komentua uzteko agindua jaso zuen, herri-matxinaden eta elizak eta komentuak erretzen zituzten kontrolik gabeko lagunen beldur baitziren. Horren ondorioz, erkidegoaren zati batek Durangoko karmeldar oinutsen komentuan bilatu zuen babesa, Bizkaian<sup>59</sup>. Une larri horietan, 1936ko uztailaren 23an, agintariek, arte-lanak arriskuan zeudela oharturik, Ondare Artistikoa Konfiskatzeko eta Babesteko Batzarra sortu zuten dekretuz, lan horiek babesteko, suntsitu ez zituzten. Hartu zuten aurreneko neurrietako bat, besteak beste, arte-ikuspegitik interes handiena zuten lanak jasotzea izan zen, leku seguruagoetara eramateko. Zeregin hori egiteko, Batzarrak

57 Ibid, 71. or. Antonia Ríos de Balmasedak, erlikien kaperari buruzko azterketan, Cedilloren hitzak jaso, eta ondokoa idatzi zuen: «En el mismo Catálogo Monumental, se asegura que perteneció también a la capilla una tabla pintada por un pintor renacentista no identificado, en la que se representaba a la virgen María sosteniendo al Niño Jesús en sus brazos, y ofreciéndole una rosa en presencia de san José». Ríos de Balmaseda 1991, 136. or.

58 Eskerrak eman nahi dizkiet Cuervako komentuko ama nagusiari eta bigarren nagusiari, haien artxiboa kontsultatzeko eskaini dizkidaten erraztasunengatik eta adeitasunagatik.

59 Antonia Ríos de Balmasedak ahoz adierazi didanez, Cuervako mojak lehenik Bergaran kokatu ziren, eta, gero, Durangon, eta hantxe egon ziren Cuervara itzuli ziren arte, 1945ean. Durangoko komentua 2009. urtean abandonatu zuten.





23. Cuerva (Toledo) jasotako lanen konfiskazio-akta Ondare Artistikoko Babeserako eta Konfiskaziorako Batzordea, 1937ko otsailaren 28a Espainiako Kultur Ondarearen Institutua, Kultura Ministerioa, Madril

Thomas Malonyayri agindu zion konfiskatze-lanak egin zitzaizkion Toledoko probintziako herrietan<sup>60</sup>, eta horien artean Cuervak egon behar zuten ezinbestez<sup>61</sup>. Malonyayri izan zen Toledoko arte-ondarea babesteko borroka gehien egin zuten pertsonetako bat. 1937ko otsailaren 28an hiribilduan azaldu zen [22. ir.], eta baliotsuenak ziren obrak bildu zituen, besteak beste, Gossarten taula, hamabi piezez osatutako zerrendan 10. zenbakiaz agertzen dena [23. ir.]:

10 La Sagrada Familia, tabla escuela flamenca, mediados del XVI. Escuela de Mabuse? (partida).

Piezek Madrileran eraman zituzten, eta Gossarten margolana Pradoko Museoan utzi zuten. Francisco Javier Sánchez Cantón izan zen instituzio horren zuzendaria gerra garaian. Pradoko helduek lanari egindako argazkian argi ikusi daitekeenez [24. ir.], taulak haustura bat du, zerrendan parentesi artean aipatzen den moduan, eta, horrez gain, etiketa txiki bat du, esleitutako erreferentzia eta zenbakiarekin: «Cuerva 10». Diego Angulo Íñiguez ikertzailea Sánchez Cantónen laguna izan zen, eta harekin aritu zen lankidetzan. Antza, Angulok Pradoko Museoan zegoela ikertu zuten margolana, ezagutzera eman zuten, eta bera izan zen Jan Gossarti esleitu zion lehenengoa. Zehazki, lehen aipatutako artikuluan egin zuten, Sánchez Cantónek zuzentzen zuten *Archivo Español de Arte y Arqueología*<sup>62</sup> aldizkarian argitaratutakoan. Angulok zioenez, Cuervako komentuko taula

60 Thomas Malonyayri Ondare Artistikoa konfiskatzeko eta babesteko Batzarrarentzat egin zuten lanari dagokionez, ikusi Álvarez Lopera 2008, hemen kopiatuta dagoena: <http://revistas.ucm.es/ghi/02146452/articulos/ANHA0808120535A.PDF> (kontsulta: 2011-03-10).

61 Gai honi buruz, ikusi Álvarez Lopera 1982, II. libk., 98. eta 100. or. Ikusi, era berean, Argerich/Ara 2009, 223. or.

62 «La Sagrada Familia del convento de Cuerva, por Gossaert», Angulo 1937an, 2. epigrafe, 194.-197. or., III. ir. Crisanto Lasterrak, 1949tik 1973ra bitartean Bilboko Arte Ederren Museoak zuzendaria izan zenak, Anguloren iritzia jaso zuten hemen: Lasterra 1969, 50. eta 51 or., 110. kat.



24. Bilboko Arte Ederren Museoaren jabetzako oholaren (zazituta) argazkia, Prado Museo Nazionalera heldu zenean, 1937 Espainiako Kultur Ondarearen Institutua, Kultura Ministerioa, Madril

«Madrilgo Altxor Artistikoko Batzarrak hondamenetik gorde zuen obra ugarietako bat da [...]. Nik ez dakit zein urtetan iritsi zen Cuervako komentura Familia Santua lana. Agirietan jasota dagoenaren arabera, Aldonza Niño de Guevara andreak sortu zuen komentua, Grecok erretratututako inkisidore ospetsuaren arrebak. Bestalde, Aldonzaren semeak, hau da, Añoverreko kondea zen Rodrigo Niño y Lasso jaunak († 1620) erlikien kapera garrantzitsua eginarazi zuen, urte luzeak eman zituen Herbehereetan, eta hantxe eman zion bere arima Sortzaileari. Bruselako karmeldarren komentuan lurperatu zituzten haren gorpuzkinak, baina, gaur egun, Toledoko komentuko elizan ere harlauza bat dago, beharbada hil ondoren leku horretara eraman zutelako [ikus 36. oharra]. Hortaz, bada, ez da harritzekoa hemen jaso dugun taula Rodrigok Flandesen izandako egonaldiaren oroitzapen bat izatea. Hala ere, egia esan, ez da beharrezkoa hori onartzea Gossaarten lan bat Gatzelako monasterio batean zer dela-eta agertzen den azaltzeko»<sup>63</sup>.

Pradoko Museoan egon zen bitartean, 1939an margolana zaharberritu zuten. Halaxe jaso zuen Sánchez Cantónek Pradoko Museoaren memorian, bertan, Cuervako beste obra baten ondoan aipatzen baitu, «San Francisco del Greco»<sup>64</sup>. Era berean, Museoen Nazioarteko Zuzendaritzara bidalitako Pradoko Museoaren txostenean irakur daitekeenez, biltegiko obrei Pradoko Museoko zaharberritze-tailerrean egindako lanen artean, Cuervako piezei egindako lanak daude jasota.

63 Angulo 1937, 194. eta 196 or. Margolana Brujasko Groeninge-Musée Communal des Beaux-Arts museoan izan zen 1958an, L'art Flamand dans les Collections Espagnoles izeneko erakusketan, eta Angulok parte hartu zuen bertan, Espainiako batzorde antolatzaileko kide gisa. Erakusketaren katalogoan obra agertzen da, eta Cuervako elizatik datorrela azaltzen da (33. zenb., 65. or.).

64 «Por más que no sea ocasión para analizar la labor realizada en el taller enumeraré algunos trabajos importantes: restauración de la Epifanía del Retablo de Yepes, obra de Luis Tristán, que llegó al Museo en siete pedazos; del San Francisco del Greco, procedente de Cuerva; de la tabla de Gossaert del mismo convento; la Piedad de Morales, traída de Polán; de los cuadros de El Escorial: la Mesa de los Pecados capitales de El Bosco y los Improperios del mismo autor; los lienzos de Moretto y el Lavatorio de Tintoretto; las tablas de retablo del Cardenal Mendoza de San Ginés de Guadalajara, y de Illescas un retrato de Pantoja y el Ecce-Homo de Morales». «El Museo del Prado, desde el 18 de julio de 1.936 hasta el 28 de marzo de 1.938», Memoria de Sánchez Cantón, Archivo MNP, C. 1423, leg. 11.283, exp. 5, fol. 22, nota 1. Eskerrak eman nahi dizkiot Pradoko Museo Nazionalako Liburutegi Arloko burua den Javier Docampori, Gossarten taularekin zerikusia duen agiri hau eta beste batzuk bidali dizkidalako.

Gerra bukatu ondoren, Genevara eramandako obrek Pradoko Museoan utzitako hutsunea nolabait betetzeko, erakusketa bat zabaldu zen 1939ko uztailaren 6an –Genevara eramandako lanak bertan zeuden ikusgai, eta ez ziren Madrilera itzuli 1939ko irailaren 9ra arte–. Erakusketa horretan, «Espainiako hainbat herritako eliza eta museoetako margolanak»<sup>65</sup> jarri ziren, Pradoko Museoan zaharberitutako lanak denak. Sánchez Cantón-ek aukera horretarako prestatu zuen katalogo txikian, *Familia Santua* agertzen da<sup>66</sup>.

Bien bitartean, gerra amaitu ondoren, Cuervako komentua egoera negargarrian gelditu zen, eta, hargatik, erkidegoa ezin izan zen hara itzuli, 1945. urtean berreraiki zuten arte. Eta, hain zuzen ere, horretarako merituko eskuratu nahian, lekaimeak kudeaketak egiten hasi ziren beren margolanak berreskuratzeko eta salgai jartzeko, artean Pradoko Museoan baitzeuden gordeta. Bilboko Arte Ederren Museoak berehala erakutsi zuen interesa Gossarten taula eta Grecoren *San Frantzisko otoitzean Gurutziltatuaren aurean* izeneko lana eskuratzeko. Obra horiei egin zaien lehenengo aipamena museoaren 1939ko urriaren 11ko aktan agertzen da:

Darse por enterada la Junta del ofrecimiento de varias obras de arte hoy en depósito en el Museo y de una obra del Greco y una tabla de Escuela Flamenca propiedad de la Comunidad de Religiosas Carmelitas del Convento de La [sic] Cuerva (Toledo), obras hoy expuestas en el Museo del Prado de Madrid, acordándose respecto de esta última oferta, que el Director Sr. Losada se traslade a Madrid para examinar dichas obras y dictaminar sobre la conveniencia de su adquisición por el Museo<sup>67</sup>.

Urriaren 20an, Manuel Losada Madrilera joan zen obrak aztertzerako, eta itzuli zenean oso iritzi aldekoa eman zuen; horiek horrela, obrak erosteko izapideak egiten hasi ziren berehala<sup>68</sup>. Cuervako komentua itxita zegoela kontuan izanik, erkidegoak Durangoko komentutik egingo zituen kudeaketak, bertan aurkitu baitzuten babesa ama nagusiak eta erkidegoaren zati handi batek<sup>69</sup>. Urriaren 26ko aktaren arabera, Pradoko Museoan aztertutako bi margolan erostearen aldeko txostena egin zuen Losadak<sup>70</sup>; hauek ziren lanak: «Grecoren San Frantzisko bat, eta Gossarten Familia Santua». Bestalde, azaroaren 6ko aktan, onespena eman zieten Lorenzo Hurtado de Sarachok, museoaren Batzordeko presidenteordeak, 125.000 pezetaren truke bi margolanak erosteko egin zituen kudeaketei<sup>71</sup>.

Azaroaren 18ko data duen eta Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiak jaulki zuen agiri baten arabera, Bilboko Museoak erosiak zituen, baina koadroek Pradoko Museoan jarraitzen zuten; hala, beraz, garai hartan Arte Ederren zuzendari nagusia zenak presatu egiten zuen, Cuervako lekaimeei koadroak itzultzeko, haiek izan baitziren «arrazoi osoz koadroak premia eskatu zituztenak, Bilboko Arte Ederren Museoari saldu zizkiote-

65 Madril 1939, III. or.

66 XLII. aretoan egon zen ikusgai, eta honelaxe dago jasota katalogoan: «Jan Gossart de Maubege, llamado 'Mabuse'. H. 1478—1533-6. La Sagrada Familia. T. 0,56 x 0,41. Convento de Carmelitas de Cuerva (Toledo). La Virgen y S. José, figuras de más de medio cuerpo. Fondo de arquitecturas renacentistas. Se relaciona con la tabla del Prado, nº 1930 [se refiere a la Virgen con el Niño, obra del mismo autor (fig. 4)]. Estudiada por Diego Angulo en Archivo, 1937. p. 194-7. Lám. XVI». Ibid., 43. or., XVI. lam.


67 1939ko urriaren 11ko akta, 69. or. Akta Liburua, Bilboko Arte Ederren Museoa (1923ko abuztuaren 21etik 1947ko urtarrilaren 24ra).

68 «Octubre 20 - Viaje y estancia del Director a Madrid para adquisición de dos cuadros». Bilboko Arte Ederren Museoa. 1939. urteko sarrearen eta gastuen kontua, «Erosketak eta zaharberitze-lanak» idatz-zatia.

69 Ez dugu baztertu behar beste aukera hau: beharbada, Esteban Bilbao Eguía bitartekari gisa arituko zen negoziazioan, eta agian museoeko Batzarrari jakinaraziko zion lekaideek obra horiek saldu nahi zituztela. Esteban Bilbao Eguía (Bilbao, 1879-Durango, 1970) Bizkaiko Foru Aldundiaren presidentea izan zen 1926tik 1930era, eta Justiziako ministroa 1939ko abuztutik aurrera. Durangori estu lotuta egon zen beti, ezkontza zela-eta. Nabarmendu behar da Bizkaiko herri horretako karmeldar oinutsen komentuan lurperatu zutela. Antonia Ríos de Balmasedari eskertu behar diogu iradokizun hau.



70 «Quedar enterada la Junta del informe de la Dirección acerca de los dos cuadros ofrecidos al Museo, que ha examinado el Sr. Losada en el Museo del Prado de Madrid donde se hallan expuestos. Dichos cuadros son: un San Francisco del Greco y una Sagrada Familia de Gossart. El informe es favorable a la adquisición de dichas obras, acordándose gestionarla en la suma de 110.000 pesetas como base de negociación, autorizando al Sr. Hurtado de Saracho para rebajar o aumentar prudencialmente dicha suma según las circunstancias que concurran». 1939ko urriaren 26ko akta, 70. or. Akta Liburua, Bilboko Arte Ederren Museoa (1923ko abuztuaren 21etik 1947ko urtarrilaren 24ra). Obrak eskuratzeko kudeatze-lanak amaitzean «zuhurtziaz igo zen» hasieran eskainitako zenbatekoa, hain zuzen ere, 15.000 pezeta.

71 «Aprobar las gestiones del Sr. Hurtado de Saracho en Madrid para adquirir un cuadro del Greco y otro de Gossart en la cantidad de 125.000 pesetas por ambas obras y solicitar préstamos de las Cajas de Ahorros Vizcaina y Municipal por la suma de 62.500 pts. de cada una, y el correspondiente aval de la Exma. Diputación y del Exmo. Ayuntamiento, con el fin de efectuar el pago de dicha adquisición; y que d[ic]ho Sr. autorice con su firma dichos préstamos». 1939ko azaroaren 6ko akta, 71. or. Akta Liburua, Bilboko Arte Ederren Museoa (1923ko abuztuaren 21etik 1947ko urtarrilaren 24ra).



25. Arte Ederren Zuzendaritza Nagusiaren agiria, 1939ko azaroaren 18a Prado Museo Nazionalaren artxiboa, 93. kutxa, 2. esp.





26-27. Cuervako (Toledo) karmeldar oinutsei artelanak itzultzeko espedientea Artea Berreskuratzeko Zerbitzua, 1939ko azaroaren 25a Espainiako Kultur Ondarearen Institutua, Kultura Ministerioa, Madril

lako, era horretan baliabideak eskuratu eta beren erkidegoko bizitza berreraiki ahal izateko». Dokumentu horrexetan, bi koadroak Pradoko Museoan zaharberritu zituztela ikusita, Zuzendaritza Nagusiak xedatu zuen karmeldarrek «Pradoko Museo Nazionalari ordaindu behar zizkiotela obra horiek hainbat aldiz zaharberritzeak eragindako gastuak» [25. ir.]. 1939ko azaroaren 25a arte ez zizkioten obrak itzuli Cuervako erkidegoari, data hori daramaten bi dokumentu irakurrita jakin daitekeenez. Dokumentu horietako bat Pradoko Museoak jaulki zuen, eta, bertan jasota dagoenez, «Cuervako (Toledo) karmeldar oinutsen erkidegoko mojenak ziren» koadroak Estatuko Arte Ondarea Babesteko Zerbitzuko Komisarioritza Orokorriari eman zizkioten, eta eskaera egin zen zerbitzuak «aipatutako koadroak» eman ziezazkien mojei [26. ir.]. Komisarioritza Orokorriak jaulkitako beste agirian argi jasota dago koadroak eman zizkiotela Cuervako karmeldarren ama nagusiari, Teresa de Jesús, koadroen jabeari [27. ir.]. Bilboko Museoak bi obrak ordaintzeko egindako agiriak abenduaren 2ko data du: «A la R<sup>a</sup> M. Teresa Valenciaga por un cuadro del Greco y otro de Gossart 125.000 [pesetas]»<sup>72</sup>. 1940ko otsailaren 7ko aktaren arabera, Manuel Losadak Gossarten taula jaso zuen Madrilan, eta Grecoren oihalarri, berriz, bilgarria jarri behar zioten, gero garraiatzeko<sup>73</sup>.

Kudeatze-lan horiek ikusita, nabaria da museoko Batzarrak interes handia zuela obra horiekiko, nahiz eta garai hartan gabezia gorrian egon ekonomia aldetik, baita Bilboko instituzio horretan ere. Izan ere, leku egokirik ere ez zuten bilduma erakusteko, eta are gutxiago erositako obrak ikusgai jartzeko. Horiek horrela, erositako lanek zuten garrantzia zela-eta, astoetan jarri zituzten ikusgai, behin-behinean<sup>74</sup>.

Azkenik, Jan Gossarten *Familia Santua* lanari buruz egin dugun azterketa sakon honetan, obra maisu horren ekoizpen osoan kokatzeko baliagarriak diren datu estilistikoak emateaz gain, alderdi tekniko interesgarri batzuk aztertu ditugu. Era berean, obraren historia berreraikitze ahalegina egin dugu; hala ere, oraindik ez dakigu nola heldu zen lana Espainiara, hain zuzen ere, Cuervara. Beharbada, Mariana de Mendozaren familiaren bidez helduko zen; edo, Anguloren tesira hurbilduz, agian, Rodrigo Niño Lassok eskuratuko zuen Flandesen egon zenean, eta opari gisa bidaliko zion gero Mariana de Mendoza koinatari; horrek nolabait argituko luke zer dela-eta ez den bere testamentuan agertzen. Dena dela, agirien bidez ondo egiaztatuta dago Lasso de la Vega familia boteretsuarena izan zela, haiek estimazio handia ziotela eta hainbat mende eman zituela familia horrek Cuervan eraiki zituen elizan eta klausurako komentuan sartuta. Azkenik, Bilboko Arte Ederren Museoak eskuratu zuen, eta, horrenbestez, era nabarmenean aberastu zen XVI. mendeko Flandesko margolanen museoaren bilduma, bilduma horretako piezarik adierazgarrienetako bat baita gaur egun.

---

72 Bilboko Arte Ederren Museoa. 1939. urteko sarreraren eta gastuen kontua, abenduaren 2a, «Erosketak eta zaharberritze-lanak» idatz-zatia. Bilboko museoak abenduaren 2an egin zuen batzarreko aktaren arabera, Bilboko Aurrezki Kutxak eskatutako mailegua eman zuen «Madrilen bi koadro eskuratzeko»: «Id. [queda enterada la Junta del Museo de Bellas Artes] de un oficio del mismo [Exmo Ayuntamiento] comunicando su acuerdo referente al préstamo concedido al Museo por la Caja de Ahorros Municipal para la adquisición de dos cuadros en Madrid». 1939ko abenduaren 2ko akta, 71. or. Akta Liburua, Bilboko Arte Ederren Museoa (1923ko abuztuaren 21etik 1947ko urtarrilaren 24ra).

73 «Darse por enterada la Junta del informe de la Dirección del Museo sobre las gestiones hechas en Madrid para la traida de los cuadros recientemente adquiridos, de los cuales la tabla de Jan Gossart, que ha sido traida en mano por el Sr. Losada, fue examinada con sumo agrado por los presentes [...]. 1940ko otsailaren 7ko akta, 73v or. Akta Liburua, Bilboko Arte Ederren Museoa (1923ko abuztuaren 21etik 1947ko urtarrilaren 24ra).

74 «En el mes de Enero llegaron a Bilbao las dos obras maestras San Francisco de El Greco y La Sagrada Familia de Gossart adquiridos en Madrid, en Diciembre del año precedente, hallándose colocados en el Museo de Arte Moderno». Ikus *Arte Ederren Museoaren Batzardeak aurkeztutako 1940ko Memoria*, 1941.

## BIBLIOGRAFIA

### **Ainsworth/Alsteens/Orenstein 2010**

Maryan W. Ainsworth ; Stijn Alsteens ; Nadine M. Orenstein. *Man, myth, and sensual pleasures : Jan Gossart's renaissance : the complete works*. Maryan W. Ainsworth (arg.). New York : Metropolitan Museum of Art ; New Haven ; London : Yale University Press ; Brussels : Mercatorfonds, 2010.

### **Álvarez Lopera 1982**

José Álvarez Lopera. «*La política de bienes culturales del gobierno republicano durante la guerra civil española*». 2 libk. Madrid : Ministerio de Cultura, 1982.

### **Angulo 1937**

Diego Angulo Íñiguez. «Miscelánea de primitivos flamencos y españoles», *Archivo Español de Arte y Arqueología*, Madrid, 39. zenb., 1937ko iraila-abendua, 191.-206. or.

### **Butler 1956**

Alban Butler. *Butler's lives of the saints*. Herbert Thurston ; Donald Attwater (eds.). 4 libk. New York : P. J. Kenedy & Sons, 1956.

### **Esteban 2005**

Alicia Esteban Estringana. *Madrid y Bruselas : relaciones de gobierno en la etapa postarchiducal (1621-1634)*. Leuven : Leuven University Press, 2005.

### **Filas 1967**

F. L. Filas. «Joseph, St., Devotion to», *New Catholic Encyclopedia*, 7. libk. New York : McGraw-Hill, 1967, 1108.-1113. or.

### **Foster 1978**

Marjory Bolger Foster. *The Iconography of St. Joseph in Netherlandish Art, 1400-1500*. 2 libk. [dokto-re-tesia]. Lawrence : University of Kansas, 1978.

### **Herzog 1969**

Sadja Jacob Herzog. *Jan Gossart called Mabuse (ca. 1478-1532) : a study of his chronology with a catalogue of his works*. 3 libk. Ann Arbor, Michigan : University Microfilms Library Services, 1969 (dokto-re-tesia; Bryn Mawr, Pasadena : Bryn Mawr College, 1968).

### **Koerner 1993**

Joseph Leo Koerner. *The moment of self-portraiture in German renaissance art*. Chicago : University of Chicago Press, 1993.

### **Lasterra 1969**

Crisanto de Lasterra. *Museo de Bellas Artes de Bilbao : catálogo descriptivo : sección de arte antiguo*. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1969.

### **Madril 1939**

*De Barnabá de Módena a Francisco de Goya : exposición de pinturas de los siglos XIV al XIX recuperadas por España*. [Erak. kat.]. Francisco Javier Sánchez Cantón (zuz.). Madrid : Museo Nacional del Prado, 1939.

### **Marías 1983-1986**

Fernando Marías. *La arquitectura del Renacimiento en Toledo (1541-1631)*. 4 libk. Madrid : Instituto Provincial de Investigaciones y Estudios Toledanos, 1983-1986.

### **Marlier 1966**

Georges Marlier. *La Renaissance flamande : Pierre Coeck d'Alost*. Bruxelles : R. Finck, 1966.

### **Ríos de Balmaseda 1991**

Antonia Ríos de Balmaseda. «La capilla de Reliquias de Cuerva y el cuadro de la Sagrada Cena de Tristán», *Toletum : Boletín de la Real Academia de Bellas Artes y Ciencias Históricas de Toledo*, 27. zenb., 1991, 129.-143. or.

### **Ríos de Balmaseda 1998**

—. *La iglesia parroquial de Cuerva (Toledo) y los Lasso de le Vega*. Toledo : Gráficas Serimo, 1998.

**Rotterdam/Brujas 1965**

*Jan Gossaert genaamd Mabuse*. [Erak. kat., Rotterdam, Museum Boymans-Van Beuningen; Brujas, Groeningemuseum]. Henri Pauwels ; H. R. Hoetinck ; Sadjá Herzog (eds.). Rotterdam : Museum Boymans-Van Beuningen, 1965.

**Sanudo 1879-1903**

Marino Sanudo. *I diarii di Marino Sanuto (MCCCCXCVI-MDXXXIII) dall'autografo Marciano ital. cl. VII codd. CDXIX-CDLXXVII*. Rinaldo Fulin... [et al.] (eds.). 58 libk. Venezia : M. Visentini, 1879-1903 (1. ed., c. 1490-1494).

**Vaquero/Ríos de Balmaseda 2001**

M.<sup>a</sup> del Carmen Vaquero Serrano ; Antonia Ríos de Balmaseda. *Don Pedro Laso de la Vega : el comunero señor de Cuerva : su testamento, el de sus padres y el de su tercera esposa*. Toledo : C. Vaquero, 2001.

**Wilson 2001**

Carolyn C. Wilson. *St. Joseph in Italian renaissance society and art : new directions and interpretations*. Philadelphia, Pa. : Saint Joseph's University Press, 2001.